

2016/17 BEKA DEIALDIA

Eskaerak Ikastolan egiteko epea urriaren 28an itxiko da

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2016/2017 ikasturterako beka deialdia jarri du abian. Eskaerak on-line, internet bidez, bideratzeko aukera eskainiko du urriaren 31 arte. Ikastolan berriz, hilak 31 jai eguna dugu eta urriaren 28ra arte jasoko ditugu eskaerak.

ON-LINE ESKAERAK

Pasa den ikasturtean 340 beka eskaera bideratu genituen Ikastolan. Idazkaritzako jarduera kolapsatu ez dadin, familiei on-line edo internet bidezko eskaerak jorra-tzea eskertuko diegu biziki.

www.hezkuntza.net web gunean aurkituko duzue eskaerak bideratzeko apli-kaziorako sarbidea. Kontutan izan izena ematean bidaltzen duen posta elektronikoa zure spam edo zabor-posta karpetara iritsi daitekeela.

ESKAERAK IKASTOLAN NOLA BIDERATU

Ikastolako idazkaritzan on-line bideratutako eskaerak sinatzeko aukera zein eskaera osoa ere bideratzeko aukera emango dugu. Horretarako aurretiko hitzordua eskatu beharko da **635 716 786** telefonoan. Harrera ordutegia 09:00etatik 11:00etara eta 14:30etik 16:30era izango da.

ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaera bakoitzeko, hau da, ikasle bakoitzeko, familiako kide guztien NANen kopia, familia liburua, familiaren errolda agiria eta 2015 urteko errenta aitortpenaren kopia aurkeztu beharko da. Agiri hauetako beharrezkoak izan daitezkeen dokumentu osagarriak gehitu beharko zaizkie (diru-sarreraren agiriak, hitzarmen erregulatzaileak, ezintasunak edo pentsioak kasu).

Eskaera on-line sinatzen duten familiek ez dute txanda eskatu behako dokumentazioa Ikastolaren bidez Jaurlaritzari helarazteko.

LAGUNTZEN EZAUGARRIAK

LAUDIO TXIKI

Haur Hezkuntza 1. zikloko ikasleek laguntza mota ezberdina eskura dezakete matrikulatuta dauden mailaren arabera.

0 eta 1 urteko haurrek, 2015an eta 2016an jaiotakoek, kuotarako laguntza eskura dezakete, hilean gehienez 90 eurokoa.

2 urteko haurrek, 2014an jaiotakoek, ikasketak ordaintzeko laguntza, 200€, eta jantokirako laguntza, gehienez 712€, eskura dezakete.

Ziklo honetarako **1. errenta muga** egiaztatu behar da kasu guztietan.

HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA

3, 4 eta 5 urteko ikasleek, 2013, 2012 edo 2011n jaiotakoek, **2. errenta muga** egiaztatu beharko dute ikasmaterialerako laguntza, 78€, zein jantokiko laguntza, gehienez 712€, eskaera berrietan.

LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH

LH eta DBH etapatan **3. errenta muga** egiaztatu behar da ikasmaterialerako laguntza eskuratzeko eta **2. errenta muga** jantokirako eskaera berrietan.

BATXILERGOA

Batxilergoan **3. errenta muga** egiaztatu behar da ikasmaterialerako laguntza eskatzeko eta **2. errenta muga** garraiorako eskaera berrietan. Maila honetan ez dago jantokirako laguntzarik.

BALDINTZA EKONOMIKOAK

	1. errenta muga	2. errenta muga	3. errenta muga
Familiakide kopurua			
1	8.143	10.668	14.826
2	13.350	17.377	25.308
3	17.567	22.820	34.352
4	20.201	27.069	40.796
5	23.232	30.717	45.598
6	26.717	34.241	49.224
7	30.724	37.576	52.810

familia errentaren kalkulua:

ZERGA OINARRI OROKORRA

+AURREZKIAREN ZERGA OINARRIA

-KUOTA LIKIDOA

BECAS 2016/2017

El plazo de solicitudes en la Ikastola finalizará el 28 de octubre

El Departamento de Educación del Gobierno Vasco ha puesto en marcha la convocatoria de becas para el curso 2016/17. El plazo para realizar las solicitudes on-line, por internet, finalizará el 31 de octubre. Sin embargo en la Ikastola el último día será el 28 de octubre, ya que el 31 es festivo.

SOLICITUDES ON-LINE

El curso pasado tramitamos 340 becas en la Ikastola. Con el fin de no colapsar el funcionamiento de la secretaría rogamos a las familias que realicen la tramitación de la beca por internet.

Encontraréis el acceso a la aplicación para solicitar becas en la web **www.hezkuntza.net**. Deberéis tener en cuenta que el correo que envía al darse de alta en la aplicación puede llegar a vuestra carpeta de spam o correo no deseado.

TRAMITAR SOLICITUDES EN LA IKASTOLA

Daremos opción tanto a firmar las solicitudes realizadas on-line como a realizar la solicitud completa a través de la secretaría de la Ikastola. Para ello deberéis solicitar cita previa en el teléfono **635 716 786**. El horario de atención será de 09:00 a 11:00 y de 14:30 a 16:30.

DOCUMENTACIÓN A ADJUNTAR

Cada solicitud, por cada alumno o alumna, deberá incluir copia de todos los DNI de la familia, libro de familia, certificado familiar de empadronamiento y declaración de la renta del año 2015, así como la documentación complementaria que sea necesaria (justificantes de ingresos, convenio regulador, incapacidad o pensiones).

Las familias que validen on-line su solicitud no tendrán que pedir cita para entregar en la documentación que deban hacer llegar a través de la Ikastola al Gobierno Vasco.

CARACTERÍSTICAS DE LAS AYUDAS

LAUDIO TXIKI

El alumnado del 1^{er} ciclo de Educación Infantil opta a ayudas diferentes según el nivel en

que se encuentre matriculado.

En 0 y 1 año, alumnado nacido en 2015 y 2016, optarán a la ayuda para cuota, de 90 euros mensuales como máximo.

El alumnado de 2 años, nacido en 2014, optará a la ayuda para enseñanza, 200€, y a la ayuda para comedor de 712€ máximo.

En este ciclo deberá acreditarse el **umbral 1** de renta.

2º CICLO DE EDUCACIÓN INFANTIL

El alumnado de 3, 4 y 5 años, nacido los años 2013, 2012 y 2011, deberá acreditar el **umbral 2** tanto para la ayuda de material escolar, 78€, como para el comedor, 712€ máximo, en las nuevas solicitudes.

EDUCACIÓN PRIMARIA Y ESO

En Primaria y ESO deberán acreditar el **umbral 3** de renta para el material escolar y el **umbral 2** para el comedor en las nuevas solicitudes.

BACHILLERATO

En Bachillerato se deberá acreditar el **umbral 3** para la ayuda de material escolar y el **umbral 2** para transporte en las nuevas solicitudes. En este nivel no existen ayudas de comedor.

REQUISITOS ECONÓMICOS

	Umbral 1	Umbral 2	Umbral 3
1	8.143	10.668	14.826
2	13.350	17.377	25.308
3	17.567	22.820	34.352
4	20.201	27.069	40.796
5	23.232	30.717	45.598
6	26.717	34.241	49.224
7	30.724	37.576	52.810

cáculo de la renta familiar:

BASE IMPONIBLE GENERAL
 +BASE IMPONIBLE DE AHORRO
 -CUOTA LÍQUIDA